


# Amen salbatzaileari jaramonik ez

ISTVAN BENEDEK



Ignaz Semmelweis (1818-1865) obstetra hungariarrak gaur egun oinarritzakoa, naturala eta logikoa iruditzen zaigun neurria proposatu zuen emakume haurdunak aztertzeko: eskuak garbitzea. Baina Semmelweisen garaian ez zekiten infekzioak mikrobioek sortzen dituztela, eta medikuntza komunitateak bizkarra eman zion.

VIENA, 1846. Ignaz Semmelweis mediku hungariarra, obstetrizian doktoregoa lortu ondoren, austriar hiriburuko Ospitale Orokorrean hasi zen lanean, eta handik gutxira, amen hilkortasun tasa izugarriaz kezkatuta, zera idatzi zion Markusovsky lagunari: “Ezin du lorik egin. Apaiza azaldu baino lehen entzuten den txilina nire arimaren bakean sartu da betiko. Egunero ezintasunez ikusten ditudan izugarrikeriek ez didate bizitzen uzten. Ezin dut honela jarraitu, dena iluna denean, kategorikoa den bakarra hildakoen kopurua denean”.

Erditze ondoko sepsiak edo sukarrak jota hildako amen kopurua ikaragarria zen benetan. Ospitaleak bi amatasun gela zituen: lehenengoan heriotza tasa oso handia zen, %15etik gorakoa; bigarreneko datuak, aldiz, ohikoagoak ziren: %4 ingurukoak. Hilkortasun handiaren iturriaren bila, bi unitateak alderatzea bururatu zitzaion Semmelweisi, eta lehenengoan medikuntza ikasle gehiago aritzen zirela ikusi zuen. Ikasleak anatomia pabilioian gorpuak manipulatzeko jardun ondoren joan ohi ziren erditzeaz zeuden emakumeei laguntzera. Hala, mediku hungariarrak heriotzen jatorria ondorioztatu zuen: “Aztertzaileen eskuetan itsatsitako gorpuen partikulak”.

Infekzio hilkorra zerk eragiten zuen zehatz jakin gabe, 1846ko urrian bertan, erditze-gelaren sarrean konketa bat jarri zuen, mediku eta ikasleek eskuak garbi zituzten. Baina amatasun-gelaren arduradun zen Johann Klein doktoreak Semmelweis laguntzailea kalera bota zuen horregatik.

Hurrengo urtean, berriro onartu zuten ospitalean, baina beste amatasun gelan, Bartsch doktorearenean. Emakume haurdunak aztertu behar dituzten guztiei eskuak kaltzio kloruroz garbitzeko eskatzen hasi zen, eta berehala heriotza-tasa %0,9ra amildu zen. *Erditze ondoko sukarraren etiologiaz, kontzeptuaz eta profilaxiaz* lana ere idatzi zuen gaiaz. Baina Europako obstetra eta zirujau gehienek aurkikuntza arbuia zuten, eta 1849an lanetik bota zuten berriro.

1865ean, dementziak jota, eroetxe batean sartu zuten, eta handik bi asteira hil zen, jipoi baten ondorioz. Bizi artean, inork ez zion aitortu funtsezko aurkikuntza. Baina Louis Pasteurrek germenen teoria garatu ondoren Semmelweis antiseptsiaren aitzindaritzat jo zuten. Eta Vienako Ospitale Orokorrean, haren estatuen azpian, “Amen salbatzailea” dago idatzita. ■



## Arrastoak 1976ko Apple I-ak ondo dabilta oraindik

STEVE WOZNIACEK 1976an diseinatutako Apple I ordenagailua saldu berri du Alemaniako enkante-etxe batek milioi erdi euroren truke. Steve Jobsi produktu berritzailea merkaturatzea bururatu zitzaion, eta Byte Shop izeneko elektronika denda kate baten bidez lortu zuten ordenagailu pertsonala banatzea. Kateak 50 ale erosi zizkien. Guztira 200 Apple I egin zituzten, eta 666,66 dolarretan saldu, Wozniacek zenbaki errepikatuak gustuko zituelako. Jobsek eta Wozniacek 5.000 dolar irabazi zituzten ordenagailu eredu harekin, orain ale bakar batek balio duena baino ehun aldiz gutxiago.

Applek saldutako lehen produktua izan zen, baina bizitza laburra izan zuen merkatuan, 1977ko apirilean Apple II berriak baztertu baitzuen. Senide gazteenaren soinu, kolore eta erresoluzio handiarekin ezin izan zuen lehiatu Apple Iak, baina produktuaren kalitatea gutxik jartzen du zalantzan 36 urte geroago: 200 ordenagailuetatik sei geratzen dira, eta seiek ondo funtzionatzen dute oraindik. ■



BONWDEB.FR